


beira

margotu berria



www.beira.eus

f beirataldea

Beira_taldea

YouTube Beira_taldea

Beira taldea Jon Martinek eta Igor Arruabarrenak sortu zuten 2006an Oiaztearen. Beira taldearen xedea musikaturako bertsoen esparruan sakontzea eta hitza musikarekin ahalik eta txukunenean uztartzea da. Beira taldeak poliki eta inolako presarik gabe erabaki zuen urrats horiek guztiak ematea. Erritmoak sortu, letrak idatzi eta biak batuta, musikaturako bertsoak kantu bihurtu. "Moskutik Lezotira" eta "Euskararen itotiyak" diskoetan kolaboratu zuten kantu banarekin. Bikoteak "Dena ez denean ezer" lehen diskoa 2013an autoekoiztu zuen. Doinu eta letra malenkoniatsuak dira nagusi. Zuzenekoetan, ordea, umorea eta erritmoaren bidea jorratuko dute. Laster batean Beira boskote egingo zen beharrak eta hedapenak zirikatura: Igor Arruabarrena (gitarra), Jon Martin (abeslaria), Urtzi Olaziregi (baxua), Gari Amundarain (gitarra) eta Mikel Arruabarrena (bateria). 2014an taldea sendotu ondoren, kantu berrien jarioak ez du izango etenik eta bigarren diskoa hasiko da kimatzen.

Beira taldearen "Margotu berria" bigarren diskoa 2014 eta 2015 urteetan zehar grabatu du Axular Arizmendi soinu teknikariak Mutrikuko AME estudioetan. Masterizazioa 2015eko azaroan egin du Estanis Elorzak Donostiako Doctor Master estudioetan. Diseinua Goren Alkizak egin du eta azaleko argazkia Eneko Salaberriak. Musikari gonbidatuen atalean, Alai Belaunzaraneke arpa jo du "Terrazatako loreak" abestia. Irati Odriozolak ahotsa sartu du (Terrazatako loreak, Kezko kezka, Auzo lasaia). Axular Arizmendi perkusioak egin ditu "800 dukado" abestia. "Haritzaren memoria" kantua Mikel Urdangairinen "Kideari" abestia du oinarria.

Beira taldearen "Margotu berria" bigarren diskoak ongi zaindu eta idatzitako letrak ditu eta rock erritmo eta melodia distiratsu desberdinak. Beira bertsoa eta musika da, saltsa mehe egindako bertso musikaturak. Musikak askotariko doinuak ditu. Hitzak hamaika modura irakurtzekoak dira nahiz eta diskoan geldirik dauden, zuzenekoetan kantariaren bat-batekotasunari esker, hitzak moldatu eta aldatuz joan daitezke. Beira gozo eta lasai entzun eta disfrutatzeko, bizitzeko.

TERRAZATAKO LOREAK

Gau bateko maitasun istorioa kontatzen du. Gau ez elkar ezagutu du bikote batek, baina gaueko magiaren ostean, goizean ez dira beti gauzak berdin ikusten eta bietako batek ihes egiteko beharra sentitu du. Kantu lasaia da. Diskoari hasiera goxoa ematen dio eta kolorez betetako mundu batera gonbidatu du kantuak. Arparen soke lantzen duten abestia da. "Kantua Marokon idatzia dago. Bertako kale estuetatik paseatzen nabilela paretan margotu berri baten ondorekin igaro nintzen. Ohartu nintzen, paretak ez ezik paretapeko landareak ere pintura itoz zipriztinduta geratu zirela. Hor konturatu nintzen polita litzatekeela norbait, maitasun adierazpen moduan, loreak banan bana margotzeko prest egotea".

BOST SEXUMEN

Zentzumen bakoitzak sexuarekin duen harremanaz hitz egiten du. Soinu eta melodia sexu-sensualak ageri ditu. Erritmo goxo dantzagarria hitz berdez lagunduak. "Sexua gure bizitzan oso garrantzitsua da, baina gutxitan hitz egiten dugu haren gainean. Bost bertso hauetan gai hori lantzen da, baina modu finean idazten saiatu nintzen; edonork entzuteko moduan. Ez da erraza oreka hori topatzea".

NIRE BURU HARI

Ikuspuntu psikologikotik idatzitako kantua da. Barrurako begirada bat. Kantu zuzena, alai eta single garbia. "Duela sei-zazpi urte bolada txarra pasa nuen eta nire buruari errepasso handia eman behar izan nion. Orduan hasi nituen bertsoak, baina ez nuen bukatzeko indarrik izan. Lau urte beranduagora arte ez nuen barrenek izan sorta bukatzeko. Distantzia hori behar nuen, antza, nire buru hartatik".

HARITZAREN MEMORIA

Hildakoen memoriari buruzko kantua. Mikel Urdangairinen "Kideari" kantaren bertso moldatua da. Gure lurretan urteetan zehar jasandako minak irudikatzen dituen akorde, soinu eta letra zuzena. "Ez da erraza Euskal Herrian jaikitzea. Dutzatzeko denboran irriatik albisteak ematen ditu eta inor ez da ohitzen ezagunen bat atxilotu dutela entzuzera. Kasu honetan, Oiaztearen izan ziren atxilotetarak Aritxulegiko basoa (Gudariaren basoa ere deitutakoa) dela-eta (gaur egun absoltuak daude atxilotuak). Atxilotuetako batzuk oso gertukoak ziren eta hunkituta nengoen. Horrelakoetan, bertsoak idatzi ohi ditut eta aste horretan Beira taldearen kontzertua genuen Eibarren eta han estreinatu genuen letra. Beira beste talde askotatik bereizten duen faktoreetako bat da hori, aktualitatea landu dezakegula aste batetik bestera".

ARMADURA HERDOILDUKO GERLARIA

Izen bereko liburuan oinarritutako abestia da. "Duela urte batzuk irakurri nuen Robert Fisher-en liburua eta konturatu nintzen neronek ere armadura bat erakia nuela nire azalaren gainean. Besteengandik babesteko jantzi genuen guztiak, batzuek lodiagoa, besteek meheagoa, baina denok daramagu. Babesten gaituenak, ordea, besteengandik urrutiratzen gaitu".

SAR DADILA KALABAZAN

Disney-ko istorioetan happy end-etara ohitu gaituzte beti, baina bizitza errealean gauzak ez dira beti ondo bukatzen. Ipuinetako sei pertsonai aukeratu eta haiek gaur egungo gizartearen bizitzaren duten dekadentziak hitz egiten du kantuak. "Bizitzaren gehien gustatzen zaidan gauzatarako mundua edertzea da. Gauzak modu ederrean esan badaitezke, zerbait modu ederragoan aurkeztu, zergatik ez egin? Kasu honetan, ordea, aurkako ariketa egiten saiatu nintzen: hain edulkoratuak eman zaizkigun ipuinei bukaera alternatiboa ematea. Diskoan letrak gordinenak dira. Agian ez da publiko guztientzat egokia..."

2014ko Bertsomovieda lehiaketan garailea: <https://www.youtube.com/watch?v=6zqYqsw0vys>

AUZO LASAIA

Auzo baten deskribapena. -aia! errimarekin ahalik eta hitz gehienekin errimatzen ariketa bertso-laristikoa. Rap-etik eta hip-hop munduaren atea jotzearen ahalegina. "Miretsi egiten dut raperoen gaitasuna. Oso letragile onak topatu ditut rapero munduan eta asko gozatu dut haiek entzuten. Estilo hartara hurbiltzen den letra bat idatzi nahi izan nuen kantu honetan".

INDIA

Indian bizi izandako garaiei egindako kantua. Bertako ezaugarri jarritako bertsoak. Rumba alai. Latinoamerikar kutsuko melodia. "Naizenaren parte handi bat Indiari zor diot. Nire bizitzaren urtebete bertan pasa nuen lanean eta asko ikasi nuen. Bertako jendea berezia da eta kultura harrigarria. Askok dugu ikasteko. Iruditzen zait aurreko bizitzaren batean izan nintzela indiarra. Indiarra ez nintzelako joan, itzuli egin nintzen".

KEZKO KEZKAK

Elkarrengandik urrun dauden bi maitalaren arteko istorioa da. Bertso neurritik aldentzen den kantu bakanetako da, geldoena eta tristeenetako. "Beti bada estudioan bertan amaitzen den letraren bat. Hauxe da disko honetako bakarra. Berez, beste letra bat du kantu honek. Badira zenbait poema ordenagailuan idatzita topatzen ditudanak. Kurioso da sentsazioa, beste norbait idatzi balitu bezala baita. Insomnio gaueetakoak izaten dira gehienak, ondorengo loaldian ahaztuak. Kantu honen sorrerakoa halakoa zen. Gero, ordea, kantua entzunda aldatu beharra sentitu nuen, ez bainintzen adierazi nahi nuena birbizitzeko gai hura kantatuta".

800 DUKADO

Emakumeek kirolean protagonismo gehiago izatea aldarrikatzen du. Sunbilako Emakumezkoen munduko Mendi Maratoirako egindakoa. 2014ko irailaren 7an jokatu zen. Gaur egun 50.000tik gora bisita dituen bideoa <https://www.youtube.com/watch?v=4Gi0ey9adhA> Kantu zuzena alai eta bizi. "Geldirik dagoena atzerantza doa" leloa azpimarragarri eta erabilgarria erakusten diguna. "Enkarguz egindako kantua da. Derrigor aipatu beharreko hitz asko ditu eta haiek guztiak metrika estuan ezartzen zailtasun dezente dago. Garai batean Sunbilako zubia eraikitzeke 800 dukado (garai hartako txanpona) behar izan zituzten. Horrek ematen dio izena kantuari".

Jon Martin: ahotsa

Igor Arruabarrena: gitarra elektrikoa, klasikoa eta programazioa

Urtzi Olaziregi: baxua

Garikoitz Amundarain: gitarra akustikoa, klasikoa eta teklatuak

Mikel Arruabarrena: bateria eta perkusioa

kontratazioa 618 072 076 - 026



Tel. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus
221 PK. 48100 Mungia (Bizkaia)

ritxi aizpuru + beira (2016ko urtarilaren 14a)